

## **MARIA GOIRI ERAIKINEAN IKERKETA ESPARRUAK ESLEITZEKO DEIALDI PUBLIKOA** ***Bigarren fasea***

### ***Helburua:***

Maria Goiri eraikinean ikerketa esparruak esleitzeko deialdiren 12. oinarrian zehaztutakoa betez, eta Euskal unibertsitate sistemako ikerketa taldeen jarduerak bultzatzeko diru laguntzak emateko xedez 2015ean egindako deialdia behin ebatzita, Ikerketaren arloko errektoreordeak bigarren faseari emango dio hasiera, eta horren bidez, aipatutako deialdiko 3. oinarrian zehaztutako esparruen gainontzeko %20 esleituko da.

### ***Bigarren fasean eskaria egin dezaketen taldeak:***

Fase honetan eskaria egin ahal izango dute A motako ikertalde finkatuek (aurrerantzean ITF), baldin eta aitorten hori lortu badute Euskal unibertsitate sistemako ikerketa taldeen jarduerak bultzatzeko diru laguntzak emateko xedez 2015ean egindako deialdian, kontuan izan gabe, finantzaketarik lortu duten edo ez. Honakoak dira mugak:

1. Ebatzi berri den deialdian B motakoak izatetik A motakoak izatera igaro diren ITFak
2. Lehen aldiz A motako ikertalde finkatu sailkapena lortu dutenak

ITFen jarduerak honako arlo batekoak izan behar dira, deialdiko 2. oinarrian zehaztutakoari jarraituz:

- a. Biomedikuntza eta Elikagaien Zientzia
- b. Ekosistema iraunkorrak

IKTko ikertzaile nagusia Bizkaiko Campuseko zentro, sail edo instituturen batera egon behar da atxikita, eta "oinarrizko ikerketa-esparrua" zehazteko bakarrik hartuko dira kontuan Bizkaiko Campusera atxikitako kideak, betiere, BERC guneren batera, edo itsas biologia eta bioteknologia ikerguneren batera atxikita/lotuta ez badaude.

### ***Bete beharreko baldintzak:***

ITFek Maria Goiri eraikinean ikerketa esparruak esleitzeko deialdiren 6. oinarrian jasotako baldintzak bete behar dituzte.

### ***Ebaluazio irizpideak:***

Ebaluazioa egiteko, Maria Goiri eraikinean ikerketa esparruak esleitzeko deialdiren 8. oinarrian zehaztutakoa hartuko da oinarri.

### ***Eskariak aurkezteko era eta epeak:***

**Eskariak, nahitaez, paperean** bete eta aurkeztu beharko dira erregistroan, Ikerketaren arloko errektoreordeari zuzenduta (Deialdien Atala). Horrez gain, dokumentazio guztia posta elektronikoz, PDF formatuan, bidali beharko da helbide honetara: [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus)

Eskariak honako dokumentuak bildu behar ditu:

- a. Eskari orria (excel formatuko artxiboa, hegal guztiak beteta)
- b. ITKak dituen eremu premiak arrazoitzen duen idatzia (nahi den formatuan).

**Eskariak aurkezteko epea 2017ko urtarrilaren 13an hasi eta 31n amaituko da (biak barne).**

**Harremanetarako:**

- ✓ **Posta elektronikoz:** [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus) (\*mezuaren gaian, mesedez, adierazi: "Esparruak esleitzeko deialdia: María Goiri").
- ✓ **Telefonoz:** 94 601 80 08